



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

UDALBATZAK 2019KO AZAROAREN 14AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Igor Zapirain Lizarribar EH BILDU
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU
Agurtzane Arribillaga Uranga EH BILDU
Cristina Martinez Arnaiz EH BILDU
Maria Iciar Jauregui Huarte EAJ-PNV
Juan Luis Cid Conde EAJ-PNV
Rodrigo Vilar Caballero Arellano EAJ-PNV
Juan Maria Caballero Arellano EAJ-PNV

IDAZKARIA :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hemeretziko azaroaren hamalauan** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zapirain Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave.

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrikusten ez den gai hau sartzea proposatzen du. Honako gai hau proposatzen du:

- EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala azaroak 25 emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren ingurukoa

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: 2019ko azaroaren 14ko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala azaroak 25 emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren ingurukoa.

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

honako gai honen azterketa

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

1.- Aurreko Udalbatza bilkuren akten onarpena

- 1.1- 2019ko ekainak 19ko ez-ohiko bilkura
- 1.2- 2019ko uztailaren 9ko ez-ohiko bilkura
- 1.3- 2019ko urriaren 15eko ez-ohiko bilkura
- 1.4- 2019ko urriaren 17ko urgentziazko bilkura
- 1.5- 2019ko urriaren 24ko ez-ohiko bilkura

2.- 118/2019tik 471/2019 raino Alkate Dekretuak jakinaraztea (salbu 138 eta 334 dekretuak hutsik gelditzen direlako)

3.- 2019ko azaroaren 8an ospaturiko ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpenen inguruko erabakiak

- 3.1- Udal langileen soldaten % 0,25eko igoera onartzea (24/2018 Errege Dekretua)
- 3.2- 2019ko Lan postuen zerrendaren aldaketa onartzea
- 3.3- 2020ko Aurrekontua, eraskina, RPT eta plantilari hasierako onarpena ematea

4.- 2019ko azaroaren 6an Kultura, Gazteria, Hezkuntza , Euskara eta Kirol Batzordearen irizpenen inguruko erakiak

- 4.1- Onartzea atxikitzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari.

5.- EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala azaroak 25 emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren ingurukoa

6.- Galdera- eskaerak

LEHENA:

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1.- AURREKO UDALBATZA BILKUREN AKTEN ONARPENAK

1.1 2019KO EKAINAK 19KO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Irakurri da 2019ko ekainak 19ko ez-ohiko osoko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2019ko ekainak 19ko ez-ohiko bilkurako akta

1.2 2019KO UZTAILAREN 9KO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Irakurri da 2019ko uztailaren 9ko ez-ohiko osoko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2019ko uztailaren 9ko ez-ohiko bilkurako akta

1.3 2019KO URRIAREN 15EKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Irakurri da 2019ko urriaren 15eko ez-ohiko osoko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2019ko urriaren 15eko ez-ohiko bilkurako akta

1.4 2019KO URRIAREN 17KO URGENTZIAZKO OSOKO BILKURA

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Irakurri da 2019ko urriaren 17ko urgentziazko osoko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2019ko urriaren 17ko urgentziazko bilkurako akta

1.5 2019KO URRIAREN 24KO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Irakurri da 2019ko urriaren 24ko ez-ohiko osoko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2019ko urriaren 24ko ez-ohiko bilkurako akta

2.- 118/2019TIK 471/2019RAINO ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA (SALBU 138 ETA 334 DEKRETUAK HUTSIK GELDITZEN DIRELAKO)

Alkateak azken ohiko bilkutatik, 2019ko martxoaren 28tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 118/2019tik 471/2019ra.

Hutsik gelditzen dira 138/2019 eta 334/2019 Alkate Dekretuak.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

3.- 2019KO AZAROAREN 8AN OSPATUTAKO OGASUN ETA PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIA

3.1 UDAL LANGILEEN SOLDATEN %0.25EKO IGOERA ONARTZEA (24/2018 ERREGE DEKRETUA)

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Ikusirik 2019/11/08ko datarekin burututako Ogasun eta Pertsonal batzordean besteak beste aztertu dela estatuko araudiak 2019rako aurreikusitako soldata igoseraren azken 0,25 ari dagokion proposamena (24/2018 Errege Dekretuaren aplikazioa).

Gaia aztertu ondoren langile negoziazio mahaian eztabaidatu zen.

2019ko azaroaren 8an izandako Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 9 aldeko botorekin, (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehen.- 24/2018ko Errege dekretua jarraiki, 2019ko uztaila geroztik udal langileen soldatak % 0,25 igotzea.

3.2 2019KO LAN POSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA

Ikusirik 2019/11/08ko datarekin burututako ogasun eta pertsonal batzordean besteak beste aztertu zirela 2019ko RPTan Polizia legeak eskatzen dituen aldaketak barneratzea.

Gaia aztertu ondoren langile negoziazio mahaian eztabaidatu zen.

2019ko azaroaren 8an izandako Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 9 aldeko botorekin, (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- 2019ko RPTa aldatzea jarraian azaltzen den aldaketak jasoaz udaltzaingo lanpostuei dagokienean:

RPT

2019 LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2020

Izena	Zenb.	Hornitzeko		Ordainsari osagarriak	Eskala	Azpies.	Mota	Hizkuntza-eskakizuna	Titulaz.	Arduraldia	Bes	Dedicación /
<i>Denominación</i>	<i>Núm.</i>	<i>era</i>	<i>Tald</i>	<i>Retribuciones</i>	<i>Escala</i>	<i>Subes.</i>	<i>Clase</i>	<i>Perfil Linguistico</i>	<i>Titulac.</i>	<i>Dedicación</i>	<i>tela</i>	<i>ón /</i>
		<i>Forma Provi.</i>	<i>Grup</i>	<i>Complementarias</i>							<i>ko</i>	<i>dedicaci</i>
			<i>o</i>								<i>bal</i>	<i>ón</i>
											<i>dint</i>	<i>oa</i>
											<i>zak</i>	
											<i>Otr</i>	
											<i>os</i>	

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

				N.O. Maila Nivel/ C.D.	O.B. C..E.				HE PL	Derrigortas un-data Fecha Preceptivid ad			req uisi tos	
Agentea (txandak) Agente (turnos)	3	ML CM	C1	17	16.502,50	AB AE	ZB SE	UD PL	2	29/09/2016	OB BE	100	B1	
Lehen Agentea Agente Primero	1	IL LD	C1	19	19.148,36	AB AE	ZB SE	UD PL	3	29/09/2016	OB BE	100	B1	%20 D.B.T .B.O 20% C. E.D.E

Erabilitako kodeak/ Códigos utilizados

1) HORNITZEKO ERA
FORMA DE PROVISION

2) ESKALA
ESCALA

ML Merezimendu bidezko lehia
CM concurso de méritos

AB Administrazio berezia
AE administración especial

3) AZPIESKALA
SUBESCALA

4) MOTA
CLASE

ZB Zerbitzu bereziak
SE servicios especiales

UD Udaltzaingoa
PL Policía Local

BIGARRENGOA.- Erabakia Gipuzkoak Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.3 2020KO AURREKONTUA, ERANSKINA, RPT ETA PLANTILARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA

Ikusirik 2019/11/08ko dataekin burututako ogasun eta pertsonal batzordean bestek beste aztertu zituela 2020ko aurrekontua eta dagozkion eranskin guztiak.

2019ko azaroaren 8an izandako Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 9 aldeko botorekin, (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- 2020ko aurrekontu bere eranskinekin, RPT eta Plantilari hasierako onarpena ematea, honako zehaztasunarekin:

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

AURREKONTUA 2020

Kapitulua	SARREAK 2020	EURO
1	Zuzeneko zergak	1.090.781,00
2	Zeharkako zergak	30.500,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	638.930,00
4	Transferentzia arruntak	3.104.000,00
5	Ondare sarrerak	110.120,00
7	Kapital transferentziak	209.000,00
8	Finantza aktiboak	3.700,00
	DENERA	5.187.031,00

Kapitulua	2020 GASTUAK	EURO
1	Gastos de personal	1.871.097,32
2	Compra bienes corrientes y servicios	1.591.494,23
3	Intereses	100,00
4	Transferencias	1.062.883,14
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00
6	Inversiones reales	538.200,00
7	Kapital transferentziak	5.000,00
8	Activos financieros	5.409,11
9	Pasivos financieros	112.847,20
	DENERA	5.187.031,00

PLANTILA ORGANIKOA 2020

Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Egoera	Oharrak
1.-NAZIO GAIKUNTZA DUTEN FUNTIZIONARIOAK				
Idazkaritza Azpieskala				
Idazkaria	1	A1	H	
Kontuhartzaitza-Diruzaintza Azpieskala				

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kontuhartzailea	1	A1	H	
Diruzaina	1	A1	H	
2.- ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA				
Azpieskala Administraria				
Administraria	3	C1	2J + 1H	
Azpieskala Laguntzailea				
Administrari laguntzailea	5	C2	3J + 2H	
3.-ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA				
Azpieskala teknikoa: goi mailako teknikoa				
Arkitektoa	1	A1	J	
Ingurumen Teknikaria	1	A1	H	
Euskara eta Hezkuntza Teknikaria	1	A1	H	
Itzultzaile-Interpretea	1	A1	H	Lanaldiaren % 75
Azpieskala Teknikoa				
Arkitekto Teknikoa-Aparejadorea	1	A2	H	
Liburuzaina	1	A2	J	
Kultura Teknikaria	1	A2	J	
Gizarte Langilea	1	A2	J	

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Zerbitzu berezien azpieskala klasea: Udaltzaingoa				
Lehen Agentea	1	C1	H	Dedikazio berezia
Agentea	3	C1	3H	
Zerbitzu berezien azpieskala.klasea: eginkizun anitzak				
Kirol Zuzendaria	1	C1	H	
Obra enkargatua	1	C2	J	
Lorezaina	1	C2	H	
Eginkizun anitzeko langilea elektrikari	1	C2	J	
Obra zerb.langilea	1	Lanbide taldea	H	
Eginkizun anitzeko langilea.obrak	1	C2	H	

	Guztira	Beteak	Hutsik
PLANTILLA GUZTIRA	29	11	18

PLANTILLA ORGANICA 2020

Nombre	Nº Puestos	Grupo	Situación	Observaciones
1.-ESCALA DE FUNCIONARIOS CON HABILITACION NACIONAL				
Subescala Secretaría				
Secretario	1	A1	V	
Subescala Intervención-Tesorería				
Interventor	1	A1	V	

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Tesorero	1	A1	V	
2.- ESCALA DE ADMINISTRACION GENERAL				
Subescala Administrativa				
Administrativo	3	C1	2P+ 1V	
Subescala auxiliar				
Auxiliar administrativo	5	C2	3P + 2V	
3.-ESCALA DE ADMINISTRACION ESPECIAL				
Subescala técnica. Clase: Técnico superior				
Arquitecto	1	A1	P	
Técnico de Medio Ambiente	1	A1	V	
Técnico de Euskara y Educación	1	A1	V	
Traductor e Intérprete	1	A1	V	Jornada 75%
Subescala técnica. Clase: técnicos medios				
Arquitecto técnico-Aparejador	1	A2	V	
Bibliotecario	1	A2	P	
Técnico de Cultura	1	A2	P	
Asistente Social	1	A2	P	
Subescala de servicios especiales. Clase:Policía Local				

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Agente Primero	1	C1	V	Dedicación especial
Agente	3	C1	V	
Subescala de servicios especiales.Clase:Cometidos especiales				
Director de deportes	1	C1	V	
Encargado de Obras	1	C2	P	
Oficial de jardinería	1	C2	V	
Oficial cometidos múltiples. Especialidad Electricidad	1	C2	P	
Operario Servicio Obras	1	Agrup. Profesional	V	
Operario cometidos múltiples obras	1	C2	V	

	Total	Propiedad	Vacantes
TOTAL PLANTILLA	29	11	18

RPT

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2020 LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2020

Izena <i>Denominación</i>	Zenb. <i>Núm.</i>	Hornitza- ko era <i>Forma Provi.</i>	Talde- a <i>Grupo</i>	Ordainsari- osagarriak <i>Retribuciones Complementarias</i>		Eskala <i>Escala</i>	Azpies. <i>Subes.</i>	Mota <i>Clase</i>	Hizkuntza- eskakizuna <i>Perfil Linguístico</i>		Titul- az. <i>Titulac.</i>	Ardu- raldi- a <i>Dedicación</i>	Best- elak- o bal- intz- ak <i>Otros requisitos</i>	Ordainsari- osagarriak <i>Retribución complementaria</i>
				N.O. Maila <i>Nivel C.D.</i>	O.B. <i>C..E.</i>				HE <i>PL</i>	Derrig- ortasu- n-data <i>Fecha Preceptiva</i>				
Idazkaritza- <i>Secretario-</i>	1	ML <i>CM</i>	A1	26	27.129,48	GN HN	I S	2.a 2ª	4	27/10/ 2009	L L	100		
Kontuhartzail- etza <i>Interventor</i>	1	ML <i>CM</i>	A1	26	27.129,48	GN HN	K I	2.a 2ª	4	27/10/ 2009	L L	100		
Diruzaina <i>Tesorero</i>	1	ML <i>CM</i>	A1	25	26.062,54	GN HN	K I	2.a 2ª	4	30/11/ 2017	L L	100		
Administraria kontuhartzail- etza <i>Administrativo intervención</i>	1	ML <i>CM</i>	C1	20	17.923,78	AO AG	A A	A A	3	31/12/ 1994	GB BS	100		
G.B. Administraria <i>Administrativo R.H.</i>	1	ML	C1	20	17.923,78	AO AG	A A	A A	3	28/12/ 2010	GB BS	100		
Administraria zergabilketa <i>Administrativo recaudación</i>	1	ML <i>CM</i>	C1	20	16.328,06	AO AG	A A	A A	3	31/12/ 1994	GB BS	100		
Administrari- laguntzailea diruzaintza	1	ML	C2	18	17.211,60	AO	AL	AL	3	31/12/ 1994	OB	100		

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Auxiliar Administrativ o Tesoreria		CM				AG	AA	AA			BE		
Administrari laguntzailea errola artxiboa	1	ML	C2	18	19.048,4 0	AO	AL	AL	3	31/12/ 1994	OB	100	
Auxiliar Administrativ o padrón archivo		CM				AG	AA	AA			BE		
Administrari laguntzailea erregistroa	1	ML	C2	18	17.211,6 0	AO	AL	AL	3	18/12/ 2002	OB	100	
Auxiliar Administrativ o Registro		CM				AG	AA	AA			BE		
Administrari Laguntzailea Kultura	1	ML	C2	16	13.948,0 6	AO	AL	AL	3	21/12/ 2007	OB	100	MI
Auxiliar Administrativ o		CM				AG	AA	AA			BE		
Administrari laguntzailea ongizate	1	ML	C2	18	17.211,6 0	AO	AL	AL	2	09/06/ 1998	OB	50 -GZ SS	
Auxiliar Administrativ o Servicio Social		CM				AG	AA	AA			BE	50- ZO SG	
Kultura- teknikaria	1	ML	A2	20	18.269,0 2	AB	T	ET	4	22/07/ 1997	D	100	
Técnico de Cultura		CM				AE	T	TM			D		
Liburuzaina	1	ML	A2	18	15.122,5 2	AB	T	ET	3	28/04/ 1992	D	100	
Bibliotecario		CM				AE	T	TM			D		
Gizarte- laguntzailea	1	ML	A2	21	18.796,8 2	AB	T	ET	3	31/12/ 1994	D	100	
Asistente Social		CM				AE	T	TM			D		
Kiroldegiaren zuzendaria	1	ML	C1	20	17.995,7 4	AB	ZB	EB	3	31/12/ 2001	GB	100	

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Director de Deportes		CM				AE	SE	CE			BS			
Euskara-hezkuntza-teknikaria <i>Técnico Euskara-Educación</i>	1	ML CM	A1	19	17.185,000	AB AE	T T	GT TS	4(TP)		L L	100		
Itzultzaile eta Interpretaria <i>Traductor e Intérprete</i>	1	ML CM	A1	19	12.888,68	AB AE	T T	GT TS	4(TP)	18/12/2008	L L	75%		
Arkitekto <i>Arquitecto</i>	1	ML CM	A1	25	22.415,82	AB AE	T T	GT TS	3	18/12/2008	L L	100	B1	
Arkitekto teknikoa edo Aparejadore <i>Arquitecto Técnico o Aparejador</i>	1	ML CM	A2	22	20317,78	AB AE	T T	ET TM	3	26/01/2005	D D	100		
Ingurumen teknikaria <i>Técnico de Medio Ambiente</i>	1	ML CM	A1	19	17.185,00	AB AE	T T	GT TS	3	18/12/2008	L L	100		
Obra-arduraduna <i>Encargado de Obras</i>	1	ML CM	C2	20	19.166,56	AB AE	ZB SE	LL PO	2	31/12/1992	OB BE	100	B1	
Ofizial lorezaina <i>Oficial de Jardinería</i>	1	ML CM	C2	16	17.009,58	AB AE	ZB SE	LL PO	2	27/12/2000	OB BE	100	B1	
Igeltseroa <i>Operario Albañil</i>	1	ML CM	Prof. T. Agr. Prof	16	17.766,00	AB AE	ZB SE	LL PO	1		EZ CE	100		
Argiketaria <i>Oficial Cometidos Múltiples: Electricista</i>	1	ML CM	C2	16	17.009,58	AB AE	ZB SE	LL PO	2	02/03/2005	OB BE	100	B1	
Eginkuzun anitzetarako ofiziala	1	ML	C2	16	17.766,00	AB	ZB	LL	1	17/02/1998	OB	100	B1	

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Operario Cometidos Múltiples		CM				AE	SE	PO			BE			
Lehen Agentea	1	IL	C1	19	19.148,3 6	AB	ZB	UD	3	29/09/ 2016	OB	100	B1	%20 D.B.T.B.O
Agente Primero		LD				AE	SE	PL			BE			20% C. E.D.E.
Agentea (txandak)	3	ML	C1	17	16.502,5 0	AB	ZB	UD	2	29/09/ 2016	OB	100	B1	
Agente (turnos)		CM				AE	SE	PL			BE			

Erabilitako kodeak/ Códigos utilizados

1) HORNITZEKO ERA
FORMA DE PROVISION

AL	
O	Azterketa bidezko lehia <i>oposición</i>
ML	Merezimendu bidezko lehia
CM	<i>concurso de méritos</i> Izendapen librea, beste toki- administrazioei irekita Libre designación abierto a otras administraciones
IL	
LD	
AML	Azterketa eta merezimendu bidezko lehiaketa
CO	<i>concurso oposición</i>

3) AZPIESKALA
SUBESCALA

I	Idazkaritza
S	<i>secretaría</i>
K	Kontuhartzailatza
I	Intervención
A	Administraria
A	<i>Administrativo</i>
AL	Administrari laguntzailea
AA	<i>auxiliar administrativo</i>
T	Teknikaria
T	Técnica
ZB	Zerbitzu bereziak
SE	<i>servicios especiales</i>

5) TITULAZIOA
TITULACION

L	Lizentziatua
---	--------------

2019/11/14

15

2) ESKALA
ESCALA

	GN	Gaikuntza nazionala
	HN	<i>habilitación nacional</i>
AO		Administrazio orokorra <i>administración general</i>

4) MOTA
CLASE

GT	Goi-mailako teknikaria
TS	<i>técnico superior</i>
ET	Erdi-mailako teknikaria
TM	<i>técnico medio</i>
A	Administraria
A	<i>administrativo</i>
AL	Administrari laguntzailea
AA	<i>auxiliar administrativo</i>
LL	Langile lanbideduna
PO	<i>personal oficinas</i>
EB	Egiteko bereziak
SE	<i>cometidos especiales</i>
UD	Udaltzaingoa
PL	<i>Policía Local</i>

6) BESTELAKO BALDINTZAK
OTROS REQUISITOS



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

L	Licenciado		
D	Diplomatua	B	B motako gidabaimena
D	Diplomado	B	carnet de conducir B
	Goi-mailako batxilergoa-LHII edo parekoa		%33 edo gehiagoko elbarritasuna minusvalia igual o superior al 33%
GB	bachiller superior-FP II o	ELB	
BS	equivalente	MI	
OB	LHI, Eskola graduatua edo parekoa		
BE	FPI, Graduado escolar o equivalente		
EZ	Eskola ziurtagiria		
CE	certificado de escolaridad		

7) ORDAINSAI OSAGARRIAK
RETRIBUCION COMPLEMENTARIA

N.O: Maila: Lantoki Osagarriaren Maila
C.D.: Nivel Complemento de Destino
1etik 30era arteko mailak
Niveles del 1 al 30 de la Ley

O.B: Osagarri Berezia
C..E. Complemento Especifico
T.O.B.O. Tarte Orokorreko Berariazko Osagarria
C.E.T.G. Complemento Especifico tramo general
D.B.T..B.O. Dedicazio Bereziko Tarteko Berariazko Osagarria
C.E.D.E. Complemente específico dedicación especial

8) DEDIKAZIOA
DEDICACIÓN

GZ Gizarte Zerbitzuak
SS Servicios Sociales

ZO Zerbitzu Orokorrak
SG Servicios Generales

BIGARRENGOA.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 15 eguneko epealdian. Adierazitako informazio-epea igaro eta inolako erreklamaziorik edo oharpenik egin ez bada, aipatutako Aurrekontu Orokorra, Plantilla Organikoa eta lanpostu zerrenda behin-betiko onartuko dira, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

4.- 2019 AZAROAREN 6AN KULTURA, GAZTERIA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROL BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIA

4.1 ONARTZEA ATXIKITZEA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKARI.

Gaztematikak 20 urte daramatza lanean gipuzkoako haur, gazte eta nerabeekin, eta Ibarra udalak hasieratik bertatik bat egin du egitasmo honekin. Lurralde ikuspuntutik lan egiten du Gaztematikak eta bere babespean, haur gazte eta nerabeentzako zerbitzu balioanitzak martxan jarri dira lurralde osoan.

Orain, sare horri babes emango dion Foru Dekretu bat onartu du Foru Aldundiak, eta udal guztiei bertara atxikitzeke eskaera egin die. Horretarako, atxikimendu agiriarekin bat egitea eskatu du.

2019ko azaroaren 6an izandako KULTURA, GAZTERIA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROL Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 9 aldeko botorekin, (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Ibarra Udala Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako erakundearteko sarera atxikitzea (Gaztematikara) atxikipen agiria sinatzeko ahalmena emanez Alkateari (I eranskina)

BIGARRENA.-Foru Aldundik Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentuaren Gazteria Zuzendaritzara zuzenduta igortzea erabaki hau, idazkariaren sinadurarekin eta erregistro elektronikoa erabili beharko delarik.

5.- EH BILDU KOALIZIOAK AURKEZTEN DUEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALAZ AZAROAK 25 EMAKUMEEN KONTRAKO INDAKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKOA

EH Bildu taldeak Ibarra Udalbatzari honako deklarazio instituzionala aurkezten dio, honek onar dezan:

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Deklarazio instituzionala

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Ibarako Udalaren EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Ibarako Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistatik gabeko gune gisa eraikitze ardua. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketuen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Euskal Herrian, estatistikak aspalditik ari dira agerian uzten indarkeria matxistak gora egiten jarraitzen duela: urtea hasi denetik 3 emakume erail dituzte. Hala ere, ezin dugu ahaztu indarkeria honen adierazpen gehienek, egunero gertatzen direnak, normalizatuak eta inbisibilizatuak jarraitzen dutela.

Nola hedabideak, publizitatea, telebista, hezkuntza ereduak, emakumeen errepresentazio justuaren falta eremu guztietan edo euren presentzia genero estereotipo eta rol diskriminatzaileak bultzatuz, hala sinesmenak, praktikak eta jarrerak, besteak beste, injustua den eta emakumeak gutxien dituen orden sozialaren parte dira. Orden hori soziala, kulturala, ekonomikoa eta sinbolikoa da, bizitzaren arlo guztiak blaitzen ditu, publikoak nahiz pribatuak, eta, emakumeak genero mandatu patriarkalapean izateko asmoz, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak erabiltzen ditu.

Eraiketa matxistek gero eta arreta mediatiko gehiago erakartzen duten heinean, (gehienetan emakumeak berbiktimizatzeko edo erantzukizuna emakumeengan uzteko errelatoekin), jendarteak irmoki gaitzesten ditu. Gure ardurak, ordea, haratago joan behar du: indarkeria mota latz hauek legitimatzen eta errazten dituzten indarkeria matxistak, mezu eta adierazpen desberdinen bidez egindakoak guztiak, ikusarazi behar baititugu: jendartean onarpen zabala dutenak eta normalizatuak mantentzen direnak, emakumeek egunero jasaten dituztenak, eta hala izan ez arren intentsitate baxu gisako identifikatzen direnak. Besteak beste, musika munduko hainbat letra zein jarrerak, filme zein bideojokoetako rolerik edo hedabideek transmititzen duten indarkeria sinbolikoaz

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

ari gara, emakumeen bizitzak eta gorputzak kontrolatzeko saiakerak, eremu guztietan femininotzat jotzen denaren gutxiespenenaren bidez gauzatzen den indarkeria psikologikoaz edo soldata txarretan edo lan baldintza prekarioetan antzeman dezakegun indarkeria ekonomikoaz ari gara.

Aurten, mugimendu feministaren beste mugarri batean, milaka emakumek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak, aski dela ozen esateko; milaka emakumek planto egin dute emakumerik gabe mundua gelditzen dela bisibilizatzeko; eta beste horrenbestek aldarrikatu dute sistema judiziala patriarkala dela eta emakumeak babestu beharrean ardura haien bizkar uzten ari dela esan dutenak, erasotzaileak justifikatuz.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko ezberdintasunak mantentzeko tresna nagusietako bat den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea, horrelako gertakari latz bat gertatzen den bakoitzean; gertakaria eragin duten arrazoiak jo behar da, sustraira jo behar da, eta hori egitera, erakundeon ardura ere bada.

Zeharkako esku hartze integralak eta iraunkorrak abian jarri behar ditugu: berbiktimizazioa baztertuta, emakumeak subjektu aktibo gisa hartuko dituzten esku hartzeak; errudun bilakatuko ez dituen esku hartzeak eta, ahots propioa, eragile aktibo diren neurrian, aitortuko dizkieten esku hartzeak. Horretaz gain, bermatu behar ditugu genero ikuspegi ahalduntzailea barnebiltzen duen artatze sistema eta erreparazio prozesuak, bai banakoak, bai kolektiboak. Giza eskubideaz ari garen heinean, instituzioen betebeharra da, alegia, mota guztietako indarkeriarik gabeko bizitzak izateko eskubideaz.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun eragile guztiok gure egin behar dugu, hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea, indarkeria matxista sortzen, biderkatzen edo normalizatzen duten heinean gure instituzio eta erakunde aldatzea: erakunde publikoak, kultur-eragileak, hedabideak, lan-arloko eragileak eta eragile ekonomikoak, ahaztu gabe banakakook dugun ardura.

Tokiko erakundeak, indarkeria matxista guztien kontra jarduteko eremu egokiak dira: erakundeak, eskolak, aisialdi edo kirol guneak, etab., betiere jendartea osatzen duten kolektibo eta arlo guztien artean burutu beharreko lana da, denok interpelatzen gaituen arazo soziala den eina.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- 1.- Ibarra Udala honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.
- 2.- Ibarra Udala honek Foru Aldundiari eta Emakunderi / EAeko Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.
- 3.- Ibarra Udala honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko du, beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.
- 4.- Ibarra Udala honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko : autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.
- 5.- Ibarra Udala honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baieztoko onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.
- 6.- Ibarra Udala honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduerak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. jasoz.
- 7.- Erakunde honetatik, hau da, Ibarra udalitik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.
- 8.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.

Udalbatzak, 5 aldeko botorekin (BILDU) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea EH BILDU taldeak azaroak 25 emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren inguruan aurkeztu duen deklarazio instituzionala.

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamalau direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

I ERANSKINA

Atxikimendua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari.

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritzekoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriar buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jarduera arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jaso. Arautze eta partaidetza jarduera hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapenaren jarduketa esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzaroa, nerabezaroa eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituen. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituen, haur eta

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorten juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareak aintzatespen juridikoa ematen zitzaioan eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengoa esaten da:

12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzea.

- 1. Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.*
- 2. Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:*

2019/11/14



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- a) Aktiboki parte hartzea Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.
- b) Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.
- c) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.
- d) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.
- e) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketena eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeena– hobetu ditzaketena.
- g) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.
- h) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza tekniko eta lankidetzak eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.
- i) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean (...)tik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da.

Horren ondorioz gure entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzan aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziatzko markoa, eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza teknikoa eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, diru-laguntzak, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak, ...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearekin bat egiteko xedez, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikulua ezarritakoaren arabera, osoko batzarraren erabakimenera jarriko da dagokion atxikimendu erabakia hartzeko.